Irungo
euskarazko
hamabostekaria

# Irunero 305

Uztailak 1, 2017

## EURIAK EZ DITU JAIAK ZAPUZTU

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Jaietako argazkiak
4 Alarde Tradizionala
8 Alarde Publikoa
12 Haurren Lehioa
13 Beti Gazte
15 Agenda

Eskaintza bereziak
DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK
Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.

HADE

Sanmartzialetan ere, euskaraz!

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302) | (Matrícula Tlf.) 943-635-266 | herrijakintza@gmail.com

## FERMIN CALBETÓN KALEA

1910eko martxoaren 26ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena, Bellido jaunaren proposamenez. Jenaro Etxeandia plazatik Eskoleta kaleraino doana da. Lehenago, Travesía de las Escuelas izena eduki zuen kaleak, udal eskoletaraino luzatzen zen kale kantoia zelako.

Fermin Calbetón y Blanchón Donostian jaio zen 1853ko irailaren 4an, nahiz eta Irunen hazi eta bizitza osoan zehar hiriari oso loturik egon zen. Zuzenbidea ikasi zuen Madrilen, gero Kubara joan zen, eta La Habanako Unibertsitatean Hazienda Publiko eta Zuzenbide Politiko Konparatuaren Katedran aritu zen.

1884an Matanzas-etik Gorteetako diputatu aukeratua izan zen lehen aldiz. 1903an biziarteko senadore izendatu zuten, eta beranduago Espainiako enbaxadore, Pio X.a Aita Santu zela. 1910ean Alderdi Liberalaren barnean, Sustapen Ministro izendatu zuten, eta bere agintaldian Nazioarteko Santiago Zubia eraikitzeko baimena eman zen. Bere esku hartzeari esker, era berean, Irungo Udalari Txit Gorena titulua eman zioten.

1918an Hazienda Ministro izendatu zuten. 1910ean Irungo Udalak herriko Seme Kuttun izendatu zuen, bide batez, kale bati bere izena jarri ziolarik.

**Iturria: José Monje**
***Irungo kaleen izenak***

IUA G29198

# IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**
Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

**Euskara zuzentzailea:**
Unai Oiartzun

**Publizitatea:**
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

**Diseinua:**
Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**
837 comunicacion y publicidad S.L.
**ISSN:**
1134-0606
**Lege gordailua:** SS-230-94
**Tel:** 943042052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

# JAIETAKO ARGAZKIAK

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

# ALARDE TRADIZIONALA

ORIGINALGAUR
SUMINISTROS SANITARIOS Y DE CONFORT

Gure etxea da Irun, eta etxea topera bizitzea da gurea.
GORA SAN MARTZIAL

BAINUONTZIAK, DUTXAK, KOMUNAK, SAUNAK, BEROGAILUAK, GALDARAK, TXORROTAK

Av. Letxunborro, 98. 20305 Irun
T. 943 616 078 — F. 943 616 849 — www.ogaur.com

ARGITZE ZENTROA

ESTIMULAZIOA

-Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan:
iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

NEUROPISKOLOGOA

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostena
TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa

Santiago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

CLINICA DENTAL
Ramón
Amantegui Ibargoyen
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
INPLANTEAK ✓ PERIODONTZIA ✓ HORTZ-ESTETIKA
PADI
Lope de Irigoyen, 9 - 1. - IRUN - Tel: 943 61 86 34.
www.clinicadentalamantegui.com

# ALARDE PUBLIKOA

Bidasoa
SAN MARTZIAL
2017

Elaberria
SAN MARTZIAL
2017

Lapitze
SAN MARTZIAL
2017

# Irungo El Pilar LH1



GELATINAZKO

GOMINOLAK

OSAGAIAK:

- Fruten zukua 1/4 litro
- Bi gelatina lamina
- Azukrea

Nola egim:

Naki dugun zukua egin, litro lauden bat.

Koilarakada bi azukre gehitu eta berotzen jarri.

Irakiten hasi aurretik, ontzia sutatik atera eta gelatina laminak tota.

Gelatina desegiten denean, nahi ditugun moldeetara bota eta hoskailuan sartu.

Hoskailutik ateratakoam moldeak kendu eta azukrea totako diegu gainetik. Askar ifili; epelduz gero gelatina urtu eta ez da hain dotore geratuko eta.

Ibai García
L.H 2 - El Pilar

CIALT
Hauek dira gure zerbitzuak:
- Zerga aholkularitza
- Enpresa aholkularitza
943 31 18 66
Tolosa etorb. 75, 2. solairua. 20018
Donostia-San Sebastián
www.cialt.com

Olaizola
Salmenta
Promozio
Aholkular
Beraketa kalea, 17 • 2030
info@inmobiliaria
www.inmobiliaria

# Irungo Hirubide BHI

EGUNEROKOA

**Azaroak 4, ostirala**

Gaur, beti bezala, goizeko zazpietan jaiki naiz, baina jaiki bakarrik. Geroxeago esnatu naiz. Arropa jantzi, gosaldu, komuneko lanak egin...betikoa egin dut.

Oso pozik egon naiz eskolan gaur, orokorrean. Eta irrikitan egon naiz, etxera joateko ordua noiz iritsiko, berri on bat neramalako, gizarteko azterketaren nota. 9,7 atera dut! Etxera iristerakoan, agurtu eta gizarteko azterketaren nota eman didatela esan diet gurasoei eta ea zenbat atera dudan uste zuten galdetu diet. Aitak, zortzia atera dudala uste zuen, eta amak, berriz, zazpi edo zortzi atera dudala. Baina ez, nik askoz ere nota hobea lortu dut. Baina zer uste dute hauek! Gurasoek ere, ni gutxiesten naute!

Bazkalostean, lanak egiten aritu naiz. Beranduago, seiak aldera, Plaiandira joan naiz, atletismoa egitera. Normalean, astelehen eta asteazkenetan joaten naiz hara. Hala ere, joan egin naiz. Oraindik asteburua gelditzen zait lanak bukatzeko. Ordurako iritsi naiz. Monitoreak, azalpenak eman, eta hasi egin gara. Bitartean, ni, taldekideen artean begira hasi naiz, ea beti gogoan dudan aurpegi ezagun hori noiz topatuko. Baina ez, ez dut aurkitu. Gaur ez da etorri. Tristetu egin naiz. Inork ez dio antzeman, ironiazko irribarre bat erabili baitut, hori disimulatzeko. Zenbaitek ere, barru-barruan oso gaizki sentitu arren, "ondo nago" dioen moduko irribarrea egiten dute. Bestalde oso ondo pasatu dut lagunekin, skipping, luzera jauziak, diskoak eta jauzi hirukoitzak eginez. Baina bera gogotik kendu gabe. Iraila ezkeroztik ezin dut burutik kendu ezta segundu baterako ere. Ez dakit zer gertatzen zaidan. Maitemina, beharbada? Hala bada, espero dut ikasketetan eragozpenik ez egitea.

Etxera itzulitakoan, dutxatu eta nire ahizparen lagunen etxera joan naiz, bertan lotan geratzeko. Eta hor ere, ez naiz beraz ahaztu. Esan bezala, ezin dut ahaztu!

**Hai Trieu Alzaga**

**Hirubide BHI 2.C**

# Euskaraz, Irunen barrena

## Mozkorraren izenak euskaraz

1.Mozkorra.
2.Leatza.
3.Muturra berotua.
4.Txispa aundiya.
5.Karretill bustiya.
6.Ondo serbittua.
7.Tranka aundiya.
8.Ankak bustiya.
9.Konfesoria.
10.Barrika.
11.Zagiya.
12.Erana.
13.Ongi lagundua.
14.Eskalaproia.
15.Eskribaua.

"Zee, ankak busti dituzu"
"Begi zak, orrek ze eskalaproia daaman"
"Eittenttu esiak eskribauak biño ederkiyo"
"Kuadrilla ori maixko deskuidatzen duk eranian"

S.R.A. andereari jasoa (1959ko abuztua). (El Bidasoa, 1959-IX-19).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Immobiliaria agentzia
-Alokairuak
berriak
ritza
02 IRUN ● Tel: 943 626585
olaizola.com
aolaizola.com

EQUIVALENZA
Colon Ibilbidea 29 - 943504419

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

# ARGO BEKAK

**Zer da:**

ARGO mugikortasunerako programa bat da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bultzatua. Bere helburua da Espainiako unibertsitate guztietako tituludunen prestakuntza osagarria bultzatzea Europako, AEBko, Canadako eta Asian edo Ozeanian egoitza duten enpresa espainiarretan edo multinazionaletan praktikak eginez.

**Betekizunak:**

- Unibertsitate tituludunak.
- 35 urtetik beherakoak.
- Legezko bizitokia Espainian dutenak eta azken hiru urteetan titulazio ofiziala Espainiako unibertsitate batean lortu dutenak.
- Eskatutako herrialdeko edo herrialdeetako hizkuntza ezagutzak
- Lehendik Mugikortasun beka baten (Argo, Faro, Integrants) edo xede edo helburu berarekin Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak finantzatutako beste edozein laguntzaren onuradun ez izana.

**Epea:**
Irailak 1.

**Informazio gehiago:**
http://www.becasargo.es/.

# EPEZ BEKAK ATZERRIAN PRAKTIKAK EGITEKO

**Deialdia egiten duen erakundea: EHU.**

**Baldintzak:**

Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarrak izatea, ikasketen azken mailan edo master ofizialen batean matrikulatuta egotea, Erasmus+ Programan guztira 9 hilabete baino gehiago parte hartu ez izana, matrikulatua dagoen zikloaren baitan, EAEn erroldatuta daudenak: izena emanda izatea LANBIDE / Euskal Enplegu Zerbitzuan, harrera herrialdeko hizkuntzan edo, aukeran, ingelesez ahoz komunikatzeko gai izatea, diru laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea.

**Epea:**

**2017/7/14.**

**Kontaktua:**
943 01 59 46/ 943 01 80 69.

asesoría BAER S.L.

Iparralde Hiribidea 3,
Irun.
Telefonoa:
943 63 99 97

# AUTOBUSAK HENDAIAKO HONDARTZARA

## (Ekainaren 17tik irailaren 10era)

**Ordutegiak:**

Irteerak Irundik:
9:00etatik 19:00etara, 60 minuturo.
Irteerak Hendaiatik: 9:30etatik 20:30etara, 60 minuturo.

**Prezioa:**

1,35 euro (Ezin daiteke Mugi/ Lurraldebus txartela erabili, mugaz gaindiko zerbitzua delako).

**Geltokiak:**

Puiana- Aldabe Mendia 13 - Gibeleta– Gurutze Gorria - Zubiaurre - Colon 43 - Luis Mariano - San Juan – Nafarroa Ibilbidea 4 – Nafarroa Ibilbidea 18 - Ficoba - SNCF (Geltokia) - Esperanza - Gazteluzahar – Kontsulatua – Hondartza.

# MATRIKULA DOAN KIROLDEGIETAN

12 eta 22 urte artekoa baldin bazara, abonatu zaitez udako hilabeteetarako eta ez ezazu matrikularik ordaindu.

**Epea:**

uztailaren 2tik irailaren 30era.

**Izen-ematea:**

uztailaren 2tik irailaren 30era.

**Non:**

Artaleku edo Azken Portu kiroldegietan.

EKAR teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

## PRIMERAKO AUKERAK

**Pisua salgai Irun Alde-zaharra**
Azalera 50 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza, balkoia, hegoalderuntz, oso argitsua.
Erreformatua.
Ref: 04209 — 75.000 €

**Pisua salgai Irun Larreaundi**
Azalera 75 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, gas berokuntza, 2 balkoi, trastelekua, hegoalderuntz, oso argitsua.
Guztiz erreformatua.
Ref: 04560 — 127.000 €

**Pisua salgai Irun Azken-Portu**
Azalera 76 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, terraza itxita eta igogailua.
Erreformatzeko.
Ref: 4608 — 129.000 €

**Pisua salgai Irun San Juan**
Azalera 102 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoi itxia, , tximinia, gas berokuntza, hegoalderuntz eta oso eguzkitxua.
Hirugarren pisua igogailurik gabe.
Ref: 04090 — 145.000 €

**Pisua salgai Irun Azken-Portu**
Azalera 97 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza, eguzkitxua, berokuntza elek., igogailua.
Trastelekua eta garaje itxita (+25.000€).
Ref: 04568 — 179.000 €

**Pisua salgai Irun Dunboa**
Azalera 80 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, igogailua, gas berokuntza, 2 balkoia.
Trastalekua eta garaje itxia barne.
Ref: 04597 — 240.000 €

**Pisua salgai Irun Kolon**
Azalera 113 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, gas berokuntza, igogailua, trastelekua, 2 balkoi.
Guztiz erreformatua.
Garaje bikoitza itxita (+55.000€).
Ref: 04588 — 310.000 €

**Etxea salgai Hendaia**
Azalera 116 m², 3 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, tximinia, balkoia, terraza, loralegia, gas berokuntza, hegoalderuntz, garaje itxia barne.
Ref: 04574 — 299.000 €

**Etxea salgai Irun Ventas**
Azalera 200 m², 4 gela, 2 bainugela, 2 komun, egongela, sukaldea, tximinia, 2 terraza, gas berokuntza, hegoalderuntz, txokoa, trastalekua eta garaje bikoitza barne.
Ref: 03226 — 407.000 €

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ, KONTSULTATU!!

# UZTAILAK

## 4

### "Naturaren nortasuna" margo erakusketa

**Noiz:** uztailak 4tik aurrera.
**Non:** Txingudi Ekoetxea.
**Ordua:** astelehenetik igandera: 10:00-14 eta 16:00-19:00.

## 7

### Uda Gazterekin irteera: Paddle surf

**Non:** irteera Martindozenea gaztelekutik.
**Ordua:** 16:00-20:00.
**Prezioa:** 10,90euro.
**Izen-ematea:** uztailaren 6ra arte.

## 9

### Gaztearte-an-Expo erakusketa: "Esan irudiekin III". Egilea: Little Madi.

**Noiz:** uztailak 9ra arte.
**Non:** Martindozenea Gaztelekuan.
**Ordua:** asteartetik larunbatera: 17:00-21:00.
**Prezioa:** doan.

## 12

### Uda Gazterekin irteera: Oihana Park.

**Non:** irteera Martindozenea gaztelekutik.
**Ordua:** 15:00-19:00.
**Prezioa:** 21,75 euro.
**Izen-ematea:** uztailaren 11ra arte.

## 13

### Uda Gazterekin irteera: Landetxako putzuak

**Non:** irteera Martindozenea gaztelekutik.
**Ordua:** 16:30-20:00.
**Prezioa:** doan.
**Izen-ematea:** uztailaren 11ra arte.

## 15

### Ibilbide gidatua Lapurriturritik: Gudak eta gotorlekuak

**Non:** Lapurriturriko informazio gunean.
**Ordua:** 10:30-13:00
**Prezioa:** doan.
**Izen-ematea:** 010/943505152.

## 15

### Genero indarkeriaren kontrako kontzentrazioa

**Non:** Zabaltza plazan.
**Ordua:** 12:00.
**Prezioa:** doan.
**Izen-ematea:** 010/943505152.

# bertako

igogailuak | ascensores

igogailuen mantentzen-lanak

**24 orduko**
benetako zerbitzua

24 365 7

Pieza guztiak barne
**100 eurotik aurrera**

**Euskarazko**
zerbitzu profesionala

EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN
IRAUPEN-KONPROMISO GABE

**ESKATU AURREKONTUA**

www.bertako.eus
info@bertako.eus
691 64 79 65